

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak, CCOO eta UGTk Justiziako langileak Nafarroako Funtzio Publikoaren Estatutura gehitzea adostu dute

Hitzarmenak bostehundik gora langile publiko ere antolatuko ditu bulego judicial berria ezatzeko

Martes, 10 de mayo de 2011

Javier Caballero lehen presidenteordeak eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak CCOO eta UGT sindikatuekin hitzarmen bat sinatu du gaur goizean. Hitzarmena justiziako langileei buruzkoa da, bai langile horiek Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuetako langileen Estatutura gehitzearen bai bulego judicial berrian izango duten antolamenduaren ingurukoa. Bulego judicial berriaren helburua sistemaren barne funtzionamendua eta herritarrei eskaintzen zaien justizia zerbitzua hobetzea da.

Hitzarmena gaur goizean izenpetu dute Caballero presidenteordeak, Ramón Alvaré Malvar Justizia Administrazioan CCOOeko ordezkaria denak eta Jesús Bayón Modino UGTren Zerbitzu Publikoen Federazioko idazkari nagusiak. Hitzarmena sinatzeko ekitaldia Nafarroako Jauregian izan da eta han izan dira Roberto Rubio Torrano Justizia arloko zuzendari nagusia eta Gregorio Eguílaz Gogorza Fundazio Publikoko zuzendari nagusia ere.

Hitzarmena martxoaren 24ko 7/2011 Foru Legeari jarraiki egin da. Lege horren bidez Nafarroako Administrazio Publikoetako zerbitzuetako langileen Estatuaren Testu Bategina aldatu zen. Orain, hitzarmena, bere garaian Foru Erkidegora pasatu ziren Justizia Administrazioiko langileak (epaileak eta idazari judicialak izan ezik) Estatu horretara gehitzeko da; hala, Foru Erkidegoko gainerako langile funtzionarioek jarraitzen duten araudia



Ramón Alvaré, Javier Caballero eta Jesús Bayón hitzarmena sinatzen



Hitzarmena sinatu dutenak, Gregorio Eguílaz (ezkerrean) eta Roberto Rubiorekin (eskuinean)

izango dute.

Neurria gaur egun langile taldea osatzen duten 527 pertsonari ezarriko zaie. Horietatik 11 auzitegiko medikuak dira, 173 prozesu kudeaketakoak, 218 izapidetzekoak eta 125 laguntza judizialekoak.

Testua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak CCOO eta UGT sindikatuekin, sektorean gehiengoa dutenekin, izandako elkarrizketen ondoren ebatzi da. Testuak ezartzen du justiziako langileei Nafarroako Estatutuan gehitzeagatik dagozkien ordainsari osagarriak emango zaizkiela 7/2011 Foru Legea indarrean denetik.

Hitzarmenak, agerikoa denez, baliabide pertsonalak ere berrantolatzen ditu, bulego judizial eta zerga bulego berria ezartzeak hori baitakar; berrantolaketa hori hitzarmenari erantsitako Lanpostuen Zerrenda (LPZ) berri batean agertzen da. Berrantolaketa hori pixkanaka burutuko da eta, horretarako, foru agindu egokiek onetsi beharreko behin-behineko zerbitzuak ezarri beharko dira. Foru Agindu horien zirriborroak egiteko ere bi aldeen arteko negoziazioak egin eta adostasunak lortu behar izan dira.

Hortaz, hitzarmenean ezartzen den moduan, izenpetu ondoren, Justizia Administrazioaren zerbitzurako langileen Hauteskunde Mahaira bidaliko da ahalik azkarren, azkeneko aldiz negoziatzeko; horren ondoren, Nafarroako Gobernuak behin betiko onetsiko du.

2006ko hitzarmenaren garapena

1999an Justizia Administrazioaren zerbitzurako langileak, zerbitzuak eta egitekoak Nafarroara lekualdatu zituzten eta Foru Erkidegoak arlo horretako eskumenak bere gain hartu eta erabili zituen. Ondoren, Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatu zuen abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoa funtzio publikoaren arloan (alor judizialeko langileei dagokienez) Nafarroaren eskumen historikoen erabilera baieztatu eta bermatu zuen zortzigarren xedapen gehigarrian.

2006an, Nafarroako Gobernuak Justizia Administrazioaren zerbitzurako langileen ordezkariak ziren sindikatuak hitzarmen bat adostu zuten. Hitzarmen horretan jaso zena, besteak beste, arauen aldaketa egokiak sustatzea izan zen, langileak Foru Administrazioaren zerbitzurako gainerako funtzionarioek jarraitu beharreko Estatutuan integratzea ahalbidetzeko, eskatzen diren zehaztasunekin. Hitzarmen hura Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren eta CCOO eta UGT sindikatuaren ordezkarien artean negoziatutakoa bezala garatu zen, Gobernuak Foru Legearen proiektuaren testua onetsi eta, horren ostean, Parlamentuan izapidetu zen, joan den martxoaren 24an onetsi zen arte.